

## EUSKOTRENEK TREN ZERBITZUA INDARTUKO DU REAL SOCIEDAD ETA REAL VALLADOLID C.F. TALDEEN ARTEKO NORGEHIAGOKA DELA ETA

Euskotrenek tren zerbitzua indartuko du ostiralean Real Sociedad eta Real Valladolid C.F. taldeek jokatuko duten futbol partidua dela eta. Partidu hori Anoetan otsailaren 28an gaueko 21:00etan jokatuko da.

Zerbitzua indartzen duten tren bereziek ohiko geldialdiak egingo dituzte gainerako geltokietan. Tren zerbitzuek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

### **NORGEHIAGOKAREN AURRETIK**

Partidu aurretik, zerbitzua tren erregularren bitartez eskainiko da:

- Hendaia – ANOETA: 20:03
- Irun – ANOETA: 20:22
  
- Altza – ANOETA: 20:35, 20:50
- Lasarte – ANOETA: 20:30
- Amara – ANOETA: 20:52

### **NORGEHIAGOKAREN ONDOREN**

- **ANOETA** – Hendaia: 22:52, 23:01, 23:06, 23:15, 23:25
- **ANOETA** – Altza: 22:56, 23:10
  
- **ANOETA** – Lasarte: 23:04, 23:20
- **ANOETA** – Zumaia: 23:10

Gainerako trenek bere ohiko ordutegia mantenduko dute.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain informazioa jaso dezakete Euskotreneko langileak dauden geltokietan, APP ofizialean, konpainiaren web gunean [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean

Igorpen data: asteazkena, 2020ko otsailaren 26an